

II. eranskina: Gai-zerrenda

Zati orokorra

1. gaia.—1978ko Espainiako Konstituzioa: printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak. Koroa. Gorte Nagusiak: osaera eta eginkizunak. Gobernua eta Estatuko Administrazioa. Botere Judiziala. Konstituzio Auzitegia: osaera, izaera eta eskumenak.

2. gaia.—Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa: atariko titulua. Nafarroaren eskumenak. Erreforma.

3. gaia.—Parlamentua edo Nafarroako Gorteak: osaera, antolaketa eta funtzioak. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa: eginkizunak, prozedura eta ebazpenak.

4. gaia.—Nafarroako Gobernua: eginkizunak. Osaera, izendapena, eraketa eta kargu-uztea. Eskudantziak eta eskumenak. Funtzionamendua. Laguntza eta sostengu emateko organoak. Erantzukizun politikoa, Parlamentuaren kontrola eta Parlamentuaren desegitea. Nafarroako Gobernuako lehendakaria. Nafarroako Gobernuako lehendakariordeak eta kontseilariak.

5. gaia.—11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa. I. titulua: "Xedapen orokorrak". II. titulua: I. kapitulua: "Foru Administrazio Publikoa". II. kapitulua: "Foru Administrazio Publikoaren antolaketa". III. kapitulua: "Eskumenen erabileraren araubide juridikoa". IV. kapitulua: "Kide anitzeko organoak". III. titulua: I. kapitulua: "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren antolaketa". VI. titulua: I. kapitulua: "Pertsonen eskubideak".

6. gaia.—Administrazio-egintzak. Administrazio-egintzen betekizunak. Egintzen efikazia. Deusezetasuna eta deuseztagarritasuna. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea: ofiziozko berrikuspena eta administrazio-errekurtsoak. Administrazio-prozedurari buruzko xedapen orokorrak: prozeduran interesdun direnak. Administrazio publikoen jardura: jarduketa-arau orokorrak; epe-mugak eta epeak. Prozeduraren bermeak. Prozeduraren hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera. Ebazpenak betearaztea.

7. gaia.—Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua: langile-motak. Funtzionario publikoen hautaketa. Funtzionario izaera hartzea eta galtzea. Administrazio-karrera. Egoera administratiboak. Lanpostu-hornikuntza. Eskubideak eta betebeharrak.

8. gaia.—5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. Xedapen orokorrak. Datuak babesteko printzipioak. Pertsonen eskubideak. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarriari buruzkoa: berdintasunaren printzipioa eta bazterkeriaren kontrako babesa. 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.

Zati espezifikoa

9. gaia.- Garbiketari buruzko kontzeptu orokorrak. Garbiketa-zerbitzuaren antolaketa eta kontrola. Lantaldeak. Garbiketako langileen eginkizunak.
10. gaia.- Garbiketari buruzko kontzeptu orokorrak. Zikinkeria motak eta horiek ezabatzeko moduak. Garbiketa motak.
11. gaia.- Alderdi ekologikoak garbiketa-lanetan: oinarrizko kontzeptuak. Hondakinak ezabatzea.
12. gaia.- Garbiketarako oinarrizko lanabesak eta tresnak. Garbiketako materiala zaintzea.
13. gaia.- Garbitzeko makinak eta sistemak. Tresna elektro-mekaniko erabilerrazak: Xurgagailuak edo antzekoak.
14. gaia.- Zoruak, hormak eta sabaiak garbitzeko prozedura eta teknikak: motak eta beharrezko tratamendua.
15. gaia.- Altzariak garbitzea. Sailkapena eta kontserbazioa. Orbanak ezabatzea eta orbanetarako tratamendua.
16. gaia.- Kristalak eta ispiluak garbitzea: Barnealdea/kanpoaldea garbitzea. Kristalezko gainazalak: Motak, kristalen ezaugarriak eta zikinkeria motak.
17. gaia.- Haur-eskolak garbitzeko lanak. Ikasgelak, komunak, lantegiak, gune komunak, jantokiak eta kanpoko guneak garbitzea.
18. gaia.- Garbiketa-produktuak: motak, ezaugarriak, manipulazioa, dosifikazioa, biltegitratzea eta etiketatzea. Hainbat produkturen ezaugarriak. Produktuei buruzko arau orokorrak. Garbiketa bidezko desinfekzioa. Produktuak erabiltzean sor daitezkeen arriskuak identifikatzea.
19. gaia.- Hondakinen eta zaborren gaikako bilketa: identifikazioa, sailkapena eta tratamendua.
20. gaia. - Ehunen garbiketa eta mantentze-lanak. Garbitegia.
21. gaia.- Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko ezagutzak: Arrisku motak eta horien prebentzioa: norbera babesteko ekipamenduak.
22. gaia.- Garbiketako lana eta haren harremana Haur Eskoletako beste lanekin eta zereginekin.
23. gaia.- Haur-eskolen garbiketa eta desinfekzioa COVIDa eta beste epidemia batzuk direnean.
24. gaia. - Sukaldeetako AKPKA. Sukaldeko harrerari, biltegitratzeari eta garbiketari buruzko oinarrizko ezagutzak.
25. gaia.- Elikadura osasungarri eta jasangarriaren oinarriak. Menu basala haur-eskoletan.